XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA

1905

AGINDUA, 2012ko apirilaren 25ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak segurtasun publikoaren arloko prestakuntza-ekintzak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura arautzeko dena.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia, Herrizaingo Sailari atxikitako administrazio-izaerako erakunde autonomo gisa, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak emandako eskudantzien artean ardura hauek dituen organoa da: Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko aurreikusitako prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatzea, antolatzea eta garatzea, baita berorien prestakuntza eta hobekuntzarako beste edozein ere. Era berean, bere ardura ere bada udalen menpeko polizia-kidegoetako funtzionarioen prestakuntza-planetarako oinarrizko irizpideak prestatzea, haien garapena koordinatzea eta gauzatzen laguntzea.

Orobat, Poliziaren Legean ezartzen denaren arabera, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren ardura da Euskal Autonomia Erkidegoan herritarrei babesa eta laguntza emateko zereginak betetzen dituzten erakunde publiko edo pribatuekiko koordinazioa eta, horretarako, bere helburuak betetzeko egokiak izan daitezkeen prestakuntza- edo zabalkunde-jarduerak sustatu eta garatuko ditu.

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak 30. artikuluan ezartzen du, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuei eta salbamendu-zerbitzuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokiela, besteak beste, funtzionario edo lan-kontratuko langileentzako sarrera-araubidearen berezitasunak arautzea, berezitasun horiek suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzu eta salbamendu-zerbitzuentzat erkideak izanez gero; eta, bestetik, beren langileen prestakuntzan eta hobekuntzan lagunduz parte hartzea.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren egiturari buruzko martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuak, Euskal Herriko Poliziaren egitura eta eginkizunak arautzen baititu, Ikastegi horren helburuen artean ezartzen ditu euskal segurtasun publikoko langileen prestakuntza eta hobekuntza. Halaber, Ikastegiak dituen helburuen artean, Dekretu horrek 2. artikuluan ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei babesa eta laguntza emateko erakunde publiko edo pribatuekin elkarlanean aritzea; hain zuzen, prestakuntza- edo zabalkunde-jardueretan, bereziki segurtasun pribatuaren, larrialdien kudeaketaren eta babes zibilaren eremuetan sartuta dauden langileei dagokienez.

Zehazkiago, Ikastegiko zuzendariaren eginkizunen artean aurreikusita dago Polizia Ikastegiko prestakuntza-ikastaroei buruzko diplomak eta ziurtagiriak ematea eta, behar izanez gero, beste prestakuntza-ekintza batzuk homologatzea, aitortzea eta baliozkotzea.

Hainbat erakunde publikok eta pribatuk segurtasunaren arloan prestakuntza-jarduerak garatzen dituztela kontuan hartuta, premiazkoa da jarduera horien kalitatea bermatzeko baldintza batzuk jartzea, era horretan Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun-zerbitzuetako eta larrialdi-zerbitzuetako eta beren erakunde laguntzaileetako kideei prestakuntzarako eta beren lanbide-sustapenerako aukera errazteko.

Ildo horretatik, prestakuntza-jarduerak homologatzeko eskakizunen eta prozeduraren arauketaren bidez bermatu nahi dira homologatu beharreko ikastaroen programen, edukien eta irakasleen egokitasuna eta ikastaroen garapena.

Horiek horrela, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren proposamenez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da eskakizunak eta prozedura arautzea Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta pribatuek antolatutako prestakuntza-ekintzak homologa ditzan; hain zuzen, ekintza horiek, kolektibo hauetako kideei, beren prestakuntza eta lanbide-sustapena hobetze aldera, zuzenduta daudenean: polizia-kidegoak eta suhiltzaile-zerbitzuak, babes zibil arloko talde eta erakunde laguntzaileak eta lurralde-eremu horretan segurtasun publikoarekin loturiko beste zerbitzu batzuk.

2. artikulua.– Prestakuntza-ekintza homologarriak.

a) Homologatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean, bere edozein herri-administraziok antolatuta eta burututa, egingo diren prestakuntza-ekintza guztiak.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak prestakuntza-ekintza bat homologatu ahal izateko beharrezkoa izango da ekintza hori kolektibo hauetako kideentzat izatea: Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak eta suhiltzaile-zerbitzuak, babes zibil arloko talde eta erakunde laguntzaileak eta segurtasun publikoarekin loturiko beste zerbitzu batzuk.

Ondorio horietarako, ekintza bat aipatutako talde horiei zuzenduta dagoela ulertuko da beroriek ikastaroa azkenean egingo duten ikasleen % 70 gutxienez direnean.

b) Era berean, homologatu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean burutuko diren prestakuntza-ekintzak, baldin eta beroriek aurreko paragrafoan aipatutako kolektiboen prestakuntzan esperientzia frogatua duten erakunde publiko edo pribatuek egiten badituzte, baita Euskal Autonomia Erkidegoan kolektibo horiek ordezkatzen dituzten erakunde profesionalek edo sindikalek egindakoak ere.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak ekintza bat homologatzeko beharrezkoa izango da ekintza hori irekia izatea eta, halaber, kolektibo horietako kide guztientzat izatea, aurreko paragrafoan hartzaileei buruz jasotakoa kontuan hartuta.

3. artikulua.– Homologazioa lortzeko prestakuntza-ekintzek bete beharreko eskakizunak.

Homologatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan egingo diren prestakuntza-ekintza guztiak, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Edukia.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak, indarrean dagoen araudiari emandako xedeak betetze aldera, egiten dituen edo 1. artikuluan aipatutako kolektiboetako kideen lanbide-garapenerako interesgarritzat jotzen diren prestakuntza-ekintzekin loturik egon beharko du. Ikastegi horri dagokio eskatzaileek proposatutako edukien egokitasuna zehaztea.

b) Modalitatea.

Prestakuntza zuzenekoa, erdipresentziala edo urrutikoa izan daiteke.

c) Irakasleak.

Irakasleek beharrezko prestakuntza izango dute eskatutako prestakuntza-ekintzaren edukiak emateko, baita prestakuntza-arloko esperientzia eta gaitasun akademiko egiaztatuak ere. Irakasleak polizia-kidego edo suhiltzaile-zerbitzuetako funtzionarioak izanez gero, ezin izango dira etendura-egoeran edo zerbitzutik bereizita egon.

d) Iraupena eta ebaluazio-sistema.

Homologatu ahalko dira hamar irakastorduko edo hamar irakastordutik gorako iraupena duten prestakuntza-ekintzak. Ikastaroak bertaratzekoak edo aprobetxamendukoak izan daitezke, eta azken kasu honetan ikasleen gaitasuna zehazteko aprobetxamendu-probak erabiltzen dituen ebaluazio-sistema edo -prozedura izan beharko dute.

e) Publizitatea.

Burutu beharreko prestakuntza-ekintzaren publizitatea bermatu egin beharko da eta, horretarako, xedea duen kolektiboaren tamainaren araberako bitartekoak baliatuko dira.

f) Hautatzeko irizpideak.

Ikasleak irizpide objektiboak erabiliz hautatuko dira; hain zuzen, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, eta lehentasuna emango zaio prestakuntza-ekintzaren eta ikasle eskatzaileak betetzen duen lanpostuaren arteko loturari.

g) Erakunde eskatzailearen prestakuntza-esperientzia.

Segurtasunarekin eta/edo larrialdiekin loturiko prestakuntza-jarduerak egin nahi dituzten erakunde eskatzaileek prestakuntzan edo aipatutako ezagutza-arloetan duten esperientzia egiaztatu beharko dute.

Eskatutako prestakuntza-ekintzak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren Urteko Planean jasotako eskaintzarekin bat etorriz gero, bakarrik homologatu ahalko dira Ikastegiaren ustez berak eskainitakoa nabarmen hobetzen dutenak edo haren osagarri direnak.

4. artikulua.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Agindu honen 2. artikuluan aipatzen diren erakundeek homologazio-eskabidea aurkeztu ahalko dute, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian interesdunen esku egongo den eredu ofizialaren arabera, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari zuzenduta, hau zehaztuko duen prestakuntza-ekintzaren azalpen-txostenarekin batera:

a) Prestakuntza-ekintzaren izena eta ekintzaren helburuak.

b) Hartzaileak, ekintzaren hautaketa- eta publizitate-sistemak.

c) Eskainitako plaza-kopurua.

d) Hautatzeko irizpideak, prozedura eta baremoa. Hasierako proba beharrezkoa den ikastaroetan proba egiteko prozesua bidaliko da.

e) Prestakuntza-ekintzak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko prestakuntza-programekin duen lotura.

f) Segurtasun– eta larrialdi-kidegoetako kideen lanbide-prestakuntzarako ekintza horren aldeko interesaren justifikazioa.

g) Non egingo den, zein egunetan eta zein ordutan.

h) Hasiera-data eta amaiera-data.

i) Edizio-kopurua.

j) Ekintzaren modalitatea: zuzenekoa, erdipresentziala, urrutikoa. Urrutiko eta erdi presentziazko modalitateetan hezitzaileekin egin beharreko tutoretzei eskainitako ordu-kopurua zehaztu beharko da, baita tutoretza horiek zuzenekoak edo urrutikoak izango diren.

k) Programa: ikastaroaren edukiak, gaiak adierazita; gaikako blokeak, horietako bakoitzari dagokion ordu-kopurua zehaztuta, eta irakastordu-kopuru osoa.

l) Ikastaroaren zuzendaria.

m) Garatu beharreko ekintza osatzen duten gaiak emango dituzten irakasleak, esleitutako prestakuntza-ekintza emateko egokitasuna frogatze aldera, beren curriculum akademiko eta profesionalarekin batera. Irakasleek beren curriculumak sinatu beharko dituzte edo, bestela, ikastaroaren zuzendari direnek. Bateragarritasun-deklarazioa, beren irakasle-izaera dela-eta, bateraezintasuna egon daitekeen kasuetarako.

n) Ikastaroa garatzeko baliabide propioak eta ekipamendu erabilgarria.

o) Baliatu beharreko materiala.

p) Ikasleak ebaluatzeko sistema.

2.– Eskainitako plaza-kopurua Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak gehiegizkotzat joz gero, ikastaroa emateko material eta instalazio erabilgarriak kontuan hartuta, eskatzaileari galdegingo zaio baliabideak onartutakoen kopurura egokitzeko, era horretan prestakuntza-ekintza kalitate-irizpideekin bat etor dadin. Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiari dagokio baliabideak egokitzeko beharra modu arrazoituan zehaztea.

3.– Ikasleen osotasun fisikoa arriskuan egon daitekeen ikastaroetan eskabidearekin batera istripu-asegurua joango da; hain zuzen, ikastaro horietan gerta litezkeen arriskuak estaltzeko. Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiari dagokio zein arrisku egon daitekeen eta istripu-asegurua egitearen egokitasuna modu arrazoituan zehaztea.

5. artikulua.– Homologatzeko prozedura.

1.– Prestakuntza-ekintzak homologatzeko eskabideak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari zuzenduko zaizkio prestakuntza-ekintza egiteko eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago, eta 4. artikuluan adierazitako agiriekin batera joango da.

2.– Horien ezean, eskatzaileari galdegingo zaio hamabost egun naturaleko gehienezko epean hutsuneak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak eransteko. Epe horretan hutsuneak zuzendu edo beharrezko agiriak aurkeztu ez badira, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

3.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak, aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, hilabeteko gehienezko epean, eskabidearen sarrera-datatik hasita, eskatutako homologazioa ebazpen arrazoituaren bidez behin-behinean onartu edo ukatuko du. Homologazioaren behin-behineko onarpena prestakuntza-ekintzaren aurrekoa izango da eta eragin bakarra izango du.

Hona hemen: ekintza garatuko duen erakundeari ahalmena emango dio ekintza horretarako berak prestatutako behin-behineko dokumentazioan homologazio hori jasota utz dezan.

4.– Behin prestakuntza-ekintza amaituz gero, hilabeteko gehienezko epean erakunde antolatzaileak bidaliko dio Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiari ekintza horren burutzapenari, gorabeherei eta azken ebaluazioari buruzko txostena, hau kontuan hartuko baitu:

a) bertaratuen zerrenda, hau da, bertaratze-portzentajea jasoko duen ikasle-zerrenda.

b) Bertaratze-sinaduren jatorrizko kontrola, prestakuntza-ekintza garatu den egun eta saio guztiei dagokiena.

c) Ikasleek egindako aprobetxamendu-probaren eredua, beharrezkoa izanez gero.

d) ikastaroaren ebaluazioari buruzko azken akta, aprobetxamendu-probak gainditu dituztenak adierazita daudela.

5.– Txosten hori aurkeztuta, eta beharrezko jarduerak eta egiaztapenak egin ondoren, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak bi hilabeteko gehienezko epean ebazpen arrazoitua emango du. Ebazpen horretan onartutako behin-behineko homologazioa behin betiko bihurtu edo eraginik gabe utziko du, betiere prestakuntza-ekintza hasi baino lehenago homologaziorako ezarritako baldintzak erakunde antolatzaileak betetzen dituen edo ez dituen betetzen egiaztatu eta gero.

6.– Homologazioak ondorioak izango ditu eskatutako jardueran edo jardueretan, baita ebazpenean aurreikusitako edizioetarako ere. Prestakuntza-jarduera beraren hurrengo edizioetarako homologazioa eskatu beharko da berriro.

6. artikulua.– Ziurtagiriak ematea.

1.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak ikasleei prestakuntza-ekintza homologatuari buruzko ziurtagiriak emango dizkie eta, horretarako, homologazio-ebazpenean ezarriko da dagokien ziurtagiri-mota.

2.– Prestakuntza-jardueran irakasleek ebaluatu beharreko proba bat gainditzea aurreikusten ez bada, egiaztapen-ziurtagiriek bertaratze-kalifikazioa izango dute.

Ziurtagiria bakarrik emango zaie gutxienez irakastorduen % 80an egon diren ikasleei.

3.– Emandako ziurtagiriek aprobetxamendu-ziurtagirien kalifikazioa izango dute, betiere prestakuntza-jardueretan ikasleek edukiak bereganatu dituztela egiaztatzeko azterketak egitea aurreikusten bada.

Edozein modutan, ziurtagiria jaso ahal izateko, nahitaezkoa izango da irakastorduen % 80an bertaratzea.

Irakastorduen % 80ra joan arren, azterketa gainditu ez duten ikasleek ez dute inolako ziurtagiririk jasotzeko eskubiderik izango.

7. artikulua.– Egiaztapen-jarduketak.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak egokitzat jotzen dituen egiaztapen-jarduketa guztiak egin ditzake prestakuntza-ekintzaren garapenari buruz. Horretarako, bertako langileak hauta ditzake ikuskapenak egiteko eta egiaztatzeko ikastaro homologatuak ematen ari direla eskatutako jardueraren behin betiko homologazioaren onarpenerako beharrezko baldintzekin bat etorriz.

8. artikulua.– Ebazpen adierazirik ezaren ondorioak.

1.– Behin-behineko homologazioa onartzeko, eskaera egin duen interesdunari ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi gabe 5. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako hilabeteko epea igaro eta gero, eskabidea administrazioaren isiltasunagatik baietsitzat joko da.

2.– Halaber, 5. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, erakundeak bete duen edo ez duen bete egiaztatu ondoren, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak behin-behineko homologazioa behin betiko bihurtzeko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe edo ondoriorik gabe utziz, erakunde antolatzaileak gauzatze-txostena aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epea igarotzeak prestakuntza-ekintzaren homologazioa administrazio-isiltasun positiboagatik lortzea eragingo du.

9. artikulua.– Antolatzaileen betebeharrak.

Erakunde antolatzaileek homologazio-eskabidean ezarritako moduan burutu behar dituzte prestakuntza-jarduerak. Prestakuntza-jardueraren elementuak aldatu behar direnean eta elementu horiek programan, iraupenean, tokian edo egunean eragina badute, nahitaez aldaketa horien berri emango diote Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiari. Aldaketaren jakinarazpena prestakuntza-jarduera egin baino lehen egin beharko da.

10. artikulua.– Erregistroa.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak homologatutako ikastaroak Ikastegian horretarako dagoen datu-basean erregistratuko dira.

11. artikulua.– Homologazioa ezeztatzea.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak homologazioa edo hura handiagotzea ezeztatuko du baldin eta prestakuntza-ekintza homologazioa baietsi zuen ebazpenean ezarritako baldintzekin burutzen ez bada eta, horrenbestez, horretatik sortutako ondorioak erabat deusez geratuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Salbuespen gisa eta, prestakuntza-beharrak eta -aukerak kontuan hartuta, Euskal Herriko Polizia Ikastegiak prestakuntza-ekintza batzuk, beren izaera eta gaiagatik eta erakunde publiko edo pribatuen ospe handiagatik, interesgarritzat jotzen baditu, homologatu ahal izango ditu Euskadiko lurraldetik kanpo agindu honen bigarren artikuluan aurreikusitakoez bestelako erakunde publiko edo pribatuek antolatutakoak direnean, betiere berorietan agindu honen 1. artikuluan aipatutako kolektiboetako kideek parte hartuz gero. Dena den, entitate horiek erakutsi beharko dute erakunde handien segurtasun publikoko eta larrialdietako prestakuntzan esperientzia frogatua dutela edo ezagutza-arlo horietan prestakuntza-ardurak dituztela.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari baimena ematen zaio agindu honetan xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 25a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.